

BILBON EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LEHENTASUNEZKO ERRONKAK

Munduan hizkuntza aniztasuna hedatzen ari den honetan, hirietan jokatzeko da nagusiki haien hiztunen arteko bizikidetzaren auzi garrantzitsuetako bat. Hizkuntza ekologiak ematen duen paradigmaman oinarrituta, gakoa da berezko hizkuntzaren eta hizkuntza partekatuen arteko harreman orekatua, elkarrenganako errespetua eta funtzio-osagarritasuna. Bilbo den hiri handia joko-zelai ezin hobea da hizkuntza-bizikidetzan urrats esanguratsuak egiteko.

Euskaldunak eta ia euskaldunak kontuan hartzen baditugu, Bilbo da euskaldun gehien dituen munduko hiria (175.500). Halaber, haur eta gazteen belaunaldiek ia osorik ikasten dute euskal ereduetan. Horrez gain, euskara ez dakiten bilbotarrek urtean 150.000 ordu ematen dituzte euskaltegietan.

Hiri eleanitza da, baina ez da euskaldun ageri. Eta ona bada Bilboren irudiarentzat atzerriko hizkuntzen presentzia normala, kaltegarri zaio bertako hizkuntzari hain toki txikia egitea.

Azken 30 urteotan euskararen ezagutzan emandako jauzi deigarriak¹ agerian uzten digu euskaldunen erakarmen indarra, euskaldunak %23a izanik beste % 28 (ia euskaldunak) erakartzea lortu baitute. Azpimarragarria da Bilboko euskaldun jendearen bizitasun soziala, bere ahulgune eta beharrekin batera, eta Bilboko Udalarik dagokio gertaera sozial horri babesa ematea.

Era berean, euskal udalerririk handiena den aldetik, Bilbok badu erantzukizun erantsi bat euskararen gainean gainontzeko udalalderik. Hain zuzen, Bilbon egiten diren saiakera arrakastatsuek ezinbestean erreferentzia bihurtuko dira haietaz eta normalizazioan aurrera egiteko lagungarri.

Euskararen bizi-indarraren adierazlerik behinena bere erabileran² kokatu beharra dago eta hortxe dugu erronka nagusia datozen urteei begira. Erabilerari erreparatuz gero, euskararen biziberritzea oraindik ahula da, hala ere, mundu mailan erreferentzia da arlo askotan, eta Euskal Herria munduko mapan kokatzen duen elementuetako bat da.

Euskarak prestigioa du mundu zabalean. Bere iraganaren misterioak eta gaur hain bizirik egoteak jakin-mina pizten dute nonahi. Alde horretatik, Bilbo euskaldun agertzeak areagotu egingo luke bere nortasuna, are erakargarriago bihurtuko hiria atzerriarrentzat. Euskararen historia sozialaren dibulgazioak badu interesik mundu zabalarentzat eta kontakizun honetan Bilbo protagonista nagusia izatera deituta dago. Azken urteotan izandako bilakaerari esker nazioarteko mapan sarri agertu da Bilbo, datozen hamarraldietan ere, munduko mapan Euskal Herriaren eta Bilboren kokapena indartuko duen elementuetako bat izan daiteke, hortaz, euskara.

Hizkuntza baten berreskurapen eta normalizazioa eginkizun konplexua da, halakoxeak baitira gizarte prozesu guztiak. Askoren erabakimenez gauzatzen ari den prozesua da euskararen

¹ 1981etik hona %6tik %23ra igo da euskaldunen portzentajea eta %15etik %28ra ia euskaldunena.

Iturria: Eustat 2011

² Bilboko euskararen erabilera % 7,4koa da. Iturria: Eustat 2011

berreskurapena, borondate anitzen batura eta eragile publiko, pribatu eta sozialen ahalegina eskatzen dituen. Euskararen lurralde osoan egiten ari den ahalegin konpartitu bat da hizkuntzaren biziberritzearena, tokian tokiko isla duena.

Arlo instituzionalean aipagarria da Euskara 21 izeneko gogoeta prozesuaren ondorioz adostu zen Itun berri baterantz (2009) izeneko txostena eta berau hartu dugu oinarritzat, jarraian aurkezten dugun proposamena luzatzeko.

Itun berri baterantz txostenak hogeita batgarren mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak finkatu zituen besteak beste eta horrekin batera Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena proposatu zuen.

“Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen barruko eztabaida 2008ko lehen hilabeteetan abiatu zen eta, gizartearen parte-hartze zabal baten ondoren, 2009aren hasieran behin betiko txostena prestatu eta ezagutarazi zen. Dokumentuak adostasun zabala lortu zuen urte berean Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zenean, hizkuntza politikaren alorrean oinarritzko kontsentsuak sendotzen ari direlako seinale.”³

Kontsentsua behar du euskararen biziberritzeak eta kontsentsurako proposatzen ditugu “Itun berri baterantz” txostenaren ondorio nagusi gisa adostu ziren 14 puntuok, Bilbon ere lehentasuneko eginkizun izan daitezen hurrengo urteetarako.

Lehentasunezko ildoak

1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea, eta bereziki belaunaldi berrietan eta euskara hainbat arrazoi direla medio ukatua izan duten bilbotarrei ere euskara ziurtatzeko.
2. Bilbon euskararen normalizazioaren bidean urratsak emateko eta hizkuntza politika egokia finkatzeko euskalgintzako gizarte mugimenduen, herritarren eta udalaren arteko elkarlana sustatu eta bultzatzea, espazio komunak elikatuz eta parte-hartze zuzena ahalbidetuz.
3. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
4. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu, besteak beste, etorkizunaren gako nagusietako bat.
5. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.

³ Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) sarrera, 4. orrialdea. Iturria:
<http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/ESEP%20Sarrera2012-05-24.pdf>

6. Bilbon herritar guztiek euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez, baina herritar guztiak kontuan hartuz.
7. Elebitasun pasiboa helduen munduan -eta gutxieneko helburutzat- baliatzeko urratsak ematea, euskaldunok euskaraz aritzeko erraztasun handiagoa izan dezaten eta, beti ere hurrengo urrats batzuen aurreko egoera egoki moduan.
8. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
9. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
10. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
11. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
12. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
13. Euskararen irudiar prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
14. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
15. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.